# LAN ESKAINTZA:

## BIZILABE HEZITZAILEA.

**OHARRA: IMHn ostegun atsaldetan 17:00-18:30etan BIZILABE proiektuan hezitzaile jarduteko eskaintza ere bada.**

### Eskaintzaren deskribapena:

**Elhuyar Zientzia unitatean euskal haur eta gazteei zuzendutako proiektuen eskaintza zabala dugu martxan. Horien artean, BIZILABE programak ditugu hainbat udalerritan aisialdian gazteak zientziara gerturatu eta balioetan hezteko: zientziaren mundua, euskararen normalizazioa, gizon eta emakumeen berdintasuna, irizpide kritikoak, jasangarritasunaren garrantzia, partaidetza, talde-lana...**

### Zer eskaintzen den:

**- Diziplina anitzeko lantalde euskaldun eta dinamiko batean aritzea.**
**- Lanaldi puntualak edo partziala, hazten joan daitekeena.**
**- Tokian tokiko erakundeekin harremana izateko aukera.**
**- Lanerako autonomia, baina programa sendo baten bermearekin.**

### Zer eskatzen den:

**- Unibertsitate-titulua edo lanbide-heziketako goi zikloa egina izatea, zientzia edo teknologiako ikasketetan.**
**- Euskara-maila: gutxienez C1 mailako agiria izatea.**
**- Haurrekin lan egiteko begirale-titulua edo irakaskuntza-masterra.**

### Zer baloratuko den:

**- Haurrekin egoteko eskarmentua eta gogoa.**
**- Gidabaimena eta auto propioa izatea.**
**- Arduratsua eta metodologikoa izatea.**
**- Gauza berriak ikasteko gaitasuna izatea.**
**- Talde-lanean aritzeko gaitasuna izatea.**
**- Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna izatea.**

**ELHUYAR-eko lantaldearen parte izan nahi baduzu, bidali zure CVa helbide honetara:** a.lasa@elhuyar.eus **Epea: urriaren 10era arte.**
**Lan-proba bat egiteko deia egingo zaie CVa bidaltzen dutenei.**